



ZIZURKILGO UDALA

EZ OHIKO OSOKO BILKURARAKO
DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: **2015eko otsailaren 10, asteartea**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

CONVOCATORIA A PLENO
EXTRAORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Extraordinario a celebrar:

Día: **10 de Febrero de 2.014, martes**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

EGUNEKO AZTERGAIK

**1.- JULIAN GALARTZA AIASTUIREN
HILKETARI BURUZ EH BILDUK
AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

ORDEN DEL DIA

**1.- MOCION PRESENTADA POR EH
BILDU SOBRE LA MUERTE DE JULIAN
GALARTZA AIASTUI.**

Zizurkilen, 2015eko otsailaren 6an

Alkatea.

Zizurkil, 6 de Febrero de 2.015

El Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

**2015eko OTSAILAREN 10ean
EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO
BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION DE PLENO
EXTRAORDINARIO CELEBRADA EL
DIA 10 DE FEBRERO DE 2.015**

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA / ALCALDE:

José María Luengo Zapirain Jauna (Bildu)

ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:

Eva Usandizaga Mujika (Bildu)

Leire Zubeldia De Esteban (Bildu)

M^a Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)

Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu)

Aratz Alkorta Irazusta (Bildu)

Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu).

Egoitz Soroazabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.)

IDAZKARIA /SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamabosteko otsailaren hamarreko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.), Aitor Sarasua Arruti (Bildu) eta Aritz Esnaola Arruti (Bildu) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da, eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela lege ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**1.- JULIAN GALARTZA AIASTUIREN
HILKETARI BURUZ EH BILDUK
AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Akta honen I. Eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

EAJ-PNVko zinegotziek adierazi dute mozioaren kontra bozkatuko dutela, ez datozelako bat mozioak esaten duenarekin, eta ez zaielako ondo iruditzen Udaleko talde politiko guztiek ez adostu izana, giza eskubideen batzorde batean. Gogorarazi dute Bilduk duela

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día diez de Febrero de dos mil quince, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.), Aitor Sarasua Arruti (Bildu) y Aritz Esnaola Arruti (Bildu).

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- MOCION PRESENTADA POR EH
BILDU SOBRE LA MUERTE DE JULIAN
GALARTZA AIASTUI.**

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo I del presente Acta.

Los concejales de E.A.J.-P.N.V. manifiestan que van a votar en contra de la aprobación de la Moción, ya que no están de acuerdo con el texto de la misma ni con el hecho de que ésta no haya sido consensuada por todos los grupos políticos municipales en una Comisión de derechos



ZIZURKILGO UDALA

urtebete baino gehiago agindu zuela giza eskubideen batzordea sortuko zuela, hain zuzen, iazko urtarrilaren 27an egindako osoko bilkuran, mozio bat onartu ostean, eta aipatu dute oraindik inork ez duela batzorde horren osaketaren berririk.

M^a Angeles Lazkano zinegotziak (EAJ-PNV) idatzi bat irakurri du, akta honen II. eranskinean jasota dagoen idatzia, eta gaiarekiko jarrera azaltzen dute bertan.

Bilduk erantzun dio mozioa abiapuntua dela biktima guztien aitortzarako. Eta adierazi dio hemendik aurrera, eta aipatutako batzordearen sorrerarekin, urratsak emango direla biktima guztien aitortzarako.

Kasu honetan, Julian Galarzaren familiakoekin harremanetan jarri dira, baina familiak ez du nahi izan Julianen heriotzaren urtemugari oihartzunik eman, eta, horregatik, ekitaldi instituzionala baino ez da egingo osoko bilkuran.

Ondoren Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako Mozioa onartzeko. Hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 6 (6 Bildurenak).
- Aurkako botoak: 2 (2 E.A.J.-P.N.V.renak).
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzak, botoen gehiengoz, aurkeztutako Mozioa onartzen du.

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta berrogei minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

O.I. Vº Bº
ALKATEA. EL ALCALDE.



humanos. Comisión cuya creación fue prometida por Bildu hace ya más de un año, concretamente en el Pleno celebrado el 27 de Enero del pasado año, tras la aprobación de una moción, y de la que, de momento, nadie sabe nada.

La concejal M^a Angeles Lazkano (E.A.J.-P.N.V.) da lectura a un escrito, que consta en el Anexo II de este Acta, en el que explican su postura al respecto.

Bildu contesta diciendo que esta moción supone un punto de partida para el reconocimiento de todas las víctimas. Y a partir de ahora y con la creación de la mencionada Comisión, se irán dando pasos para el reconocimiento de todas las víctimas.

En este caso, han contactado con la familia de Julián Galarza, pero ésta no ha querido dar publicidad al aniversario de la muerte de Julián y por ello sólo se va a realizar este acto institucional en el Pleno.

Seguidamente la Corporación pasa a realizar la votación corresponde para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 6 (6 de Bildu).
- Votos en contra: 2 (2 de E.A.J.-P.N.V.).
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Moción presentada.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y cuarenta minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.



ZIZURKILGO UDALA

I. ERANSKINA – ANEXO I

ZIZURKILGO UDALA
2015 OTS. - 6
SARREREN ERREGISTROA
Zenbakia <u>91</u>

Julian Galartza Aiastui zizurkildarra 1976ko otsailaren 10ean hil zuen ETAk Zizurkilen bertan, lanetik atera berria zela. ETAk berak bi egun geroago nahastu egin zela onartu zuen. 37 urte zituen zizurkildarrak.

39 urte geroago, 2015ko otsailaren 10ean, Zizurkilgo Udalbatzak ez ohiko osoko bilkura honen bidez gogoan izan nahi du Julian Galartza, Zizurkilen biktima anitzen aitortza egiteko hartutako konpromezuari jarraituz. Honakoa adierazi nahi du zizurkilgo udalbatzak:

1. Julian Galartza herri honen biolentziaren biktima dela eta aitortza, egia eta justizia merezi dituela.
2. Zizurkilgo Udalbatzak barkamena eskatzen dio Galartzaren sendiari, urteotan ahaztua sentitu baldin bada. Bide berean, elkarlana eskaintzen dio aitortza hori lortzeko bidean.
3. Udalbatzak argi adierazten du biktima guztien aitortzatik etorriko dela herri honen elkarbizitza, inor baztertu gabe eta mailaketetan erori gabe.

Zizurkilgo EH Bildu



ZIZURKILGO UDALA

II ERANSKINA – ANEXO II

2015 OTSAILAK 10eko udalbatzan EH BILDUK aurkeztutako mozioari emandako bozkaren azalpena

Zizurkilgo EH Bildu.k aurkeztutako mozioan besteak beste honakoa esaten da:

“Julian Galartza Aiestui jauna 1976ko otsailaren 10ean hil zuen ETAk Zizurkilen bertan, lanetik atera berri zela. ETAk berak bi egun geroago nahastu egin zela onartu zuen. 37 urte zituen zizurkildarrak.

*39 urte geroago, 2015ko Otsailaren 10ean, Zizurkilgo Udalbatzak ez ohiko osoko bilkura honen bidez gogoan izan nahi du Julian Galartza, Zizurkilen biktimatik anitzen aitortza egiteko hartutako konpromizuari **jarraituz**”*

JARRAITUZ????? Urte bete da beste ez ohiko pleno batean (orduan biktimak torturatuei gune bat jartzeko) Zizurkilen biktimatik anitzen aitortza egiteko, komisio bat osatzeko konpromezua hartu zela. Ez da behin bertan ere bildu, guk behin baino gehiagotan galdetu baldin badegu ere.

Ezker abertzaleak inorekin kontsultatu gabe, ez behintzat beste alderdi politikoekin, testua idatzi eta Udalbatzarren data jarri du eta ondoren eskatu dio EAJ-PNVri bilera. Badirudi Ezker abertzaleak, bere kontzientzia arindu nahi duela, era guztietara etsigarria den testu honekin.

Otsailak 5ean Udalean sarrera emandako idatzian, EAJ-PNVko udal taldeak, gaiak duen garrantziagatik, Ezker abertzaleari eskatu zion, Udalbatzarra deitu aurretik, alderdiei deitzeko guztien artean topaguneak aurkitu ditzagun, biktimak guztiei zor zaien aitortza, egia eta justizia bidean.

Ezker abertzaleak muzin egin dio EAJak aurkeztutako idatziari. Udalbatzar honek ez bezala, garbi eta argi esaten degu “Julian Galartza” ETArekin bihurtutako biktimatik izan zela eta ekintza hori gaitzespen degula. Gaitzespen hori abiapuntutzat izanik, Eusko Jaurlaritzak martxan dituen ekimen eta planak aintzat hartuaz, hainbat eta hainbat Udaletxe jorratzen ari diren moduan, Ezker Abertzaleari berriro ere eskatzen diogu, alderdi bakarkeriak alde batera utzi eta gaiak exijitzen duen zintotasun eta seriotasunez, Giza Eskubideen Batzordea abian jarri dezala, benetako hausnarketa prozesuari, behingoz, hasiera emateko. Orduan bidelagun izango gaituzue.